



## TOPAGUNEAK BOST URTE BETE DITU

Tolosako Gazte Topagunean biltzen dira gazteak, lagunartean euren asmoak aurrera eramateko >4

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2009-12-02

VII URTEA 1.842 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

MARTXELO OTAMENDI 'EGUNKARIA'-REN AURKAKO EPAIKETAN AUZIPETUA

## «Auzia irabaziko badugu, jendearen bultzadarekin izango da»

**TOLOSA** Abenduaren 15ean hasiko da Madrilen 'Egunkaria'-ren aurkako epaiketa; «larrituta» doala dio

**GIZARTERATZEA** Hainbat ekimen ari dira burutzen; gaur Zizurkilgo Atxulondon hitzaldia emango du tolosarrak >3



Rafa Uribarren, Markel Olano eta Jesus Mari Gorostidi, atzo, lehen harria jartzen. I. GARCIA

## ZERBITZU ETXEAREN LEHEN HARRIA JARRITA

**ABALTZISKETA** Zerbitzu ugari eskainiko dizkio herriari; Jesus Mari Gorostidi alkatearen ustez, «hobekuntza handia» izango da >5



Ibarrako sokatira taldeko kideak lehiatzen. HITZA

## Ibartarrak hirugarren izan dira Euskadiko Sokatira Txapelketan

**IBARRA** Ezustekoa eman dute, hasiberriak baitira; «oso pozik» daude lortutakoarekin >6



sarrerak

HITZAK bi sarrera du

**LAGUN ARO GBC  
XACOBEO**

saskibalo partidarako

Abenduak 6 • Igandea • 19:00etan Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira

TXOKOA hitza

**E Elkarrizketa****MARTXELO OTAMENDI** › 'Egunkaria'-ren aurkako epaketan auzipetua**'Egunkaria auzia'** ›

Hilaren 15ean hasiko da auzia; gaur Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean epaiketaren eta egungo egoeraren inguruan ariko da Martxelo Otamendi.

**INIGO TERRADILLOS - IMANOL GARCIA**


Abenduaren 15ean hasiko da Espainiako Auzitegi Nazionalen *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurkako epaiketa Madrilén. Martxelo Otamendirekin (Tolosa, 1957) batera, Joan Mari Torrealdoi, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi eta Xabier Oleaga dira auzipetuak. Tolosarrarentzat 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa eskatzen dute. Gaur hitzaldia emango du Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean, 20:00etatik aurrera, auziaren nondik norakoen berri emateko herritarrei.

**Zer sentazioarekin zoazte Madrilerara?**

Larrituta, oso akusazio larriak ditugulako; pentsa, 12 eta 14 urte arteko kartzela zigorrak. Auzitegi Nazionala auzi politikoetan sartzen gara erregabe garelako esanez, eta bukatzen duzu kartzelan, hori da azken urteetan gertatu dena. Auzi politikoak deitzen diogu erakunde armatuarekin loturarik ez daukanari, nolabait bultzada politikoa izan zutenak. Orain arte epaitu dira Haika-Jarra, 18/98 eta Gestorak, eta zoritxarrez hiru kasuetan sententziak badaude. Eta atzetik, orain gu gatoz, gero dator Udalbiltza, eta etorriko direnak. Etakide izatea eta ETAko zuzendaritzako kide izatea leporatzen digute, beraz, eskaerak gogorrak dira, eta iraganari begiratzen badiegu larritzeko arrazoiak baditugu.

**Auziaren inguruko zer irakurketa egiten duzue?**

*Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren testuinguru batean eman zen. 2003an gertatu zen, eta garai hartan harreman politikoa oso txarra zen Espainiako Gobernu eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Zabaltzen ari zen telebista eta irrati tertulietan zerbait gogorra egin beharra zegoenaren sentazioa, eta aldeberean, Ertzaintzakez zuela ETA eta kale borroka jazartzen zabaltzen ari zen, eta Espainiako armadako kideak jarri beharko litzaiozkiokela arduradun bezala eta ez EAJren agindupean zeudena, horiek ez zutelako ETA behar bezala jarraitzen. Halaber, egoera jakin batzuetan posible dela autonomia desaktibatzea eta boterea berriro Madrilerara pasatzea ere esaten zen. Hizkuntz politikaren inguruko jarrera ikastetxeetan edota finantza erakunde eta kooperatiba batzuen inguruan ETA finantzatzeko zutela ari ziren esaten,



I. TERRADILLOS

**«Herritarren bultzadarekin auzia irabaztea lortuko dugu»**

esaterako. Beraz, faktore hauek erakusten zuten nolabait, Espainian zerbait egin beharra zegoela iragartzeko ari zirela. Orduan, Guardia Zibilak Espainiako Gobernua erabaki zuten susto handi bat ematea.

#### Egunkari bat ixtea.

Inork espero ez zuena izan zen, guk ere ez baikenuen espero. Herriarrei susto handi bat ematea zen euren xedea, horretarako inork espero ez duengizal talde edo funtzio bat erabiliz. Baina itxiera ez zen gure kontra bakarrik. Euskararen eta euskarazko prentsa-aren aurka izateaz gain, ohartarazi nahi zieten euskal herritarrei edozer gauza egiteko gai zirela. Egunkari bat ixteak, gainera, adierazpen askatasunari eginiko kaltea ere esan nahi du. Zenbait juristek ere esana dute egunkari bat ixtea ez dela konstituzionala, lehendabizi dekretatu behar delako etxeratze-agindua.

#### Nola izan zen atxilotetaren eguna?

Egun horretan Azpeitian hitzaldi bat eman nuen, eta Tolosara bueltan netorrela, atzetik eta aurretik auto kamuflatuak jarri zitzaizkidan. Nire etxeko aparkalekuraino jarraitu ninduten. Modu nabarmenean egin zuten, baina ez nuen gure kontrako maila horretako ekintzarik egingo zutenik pentsatu ere egiten, beraz, ez nuen aste atxilo hartuko nindutenik. Horregatik, ez nion inorri deitu segika ari zitzaizkidalasateko, ez nuelako gertatzen zenaren inolako susmorik. Beraz, normal jarraitu nuen, afaldu eta ohean sartu nintzen.

#### Eta orduan hasi zen dena.

Lo nengoen, eta kolpatu zuten etxeko atea. Pistola bururatu apuntatu eta ea inor etxean zegoen galdetu zidaten. Nik ezetz esan, sartu ziren eta eskuburdinak jarri zizkidaten. 01:30etik 06:00ak arte edo etxeari zuten edukit ninduten. Etxe guztia hankaz gora jarri zuten. Ikurrina bat, presoan banderola, Bernardo Atxagaren *Bi anai* liburua, *Baleak eta euskaldunak* izeneko liburua, Tolosako Babarrun elkartearen kide egin ninduteneko ikurra, Cesid-i buruzko Pilar Urbanoren liburu bat edota Ayrton Senna pilotorearen autografo bat eraman zituzten, besteak beste.

Handik nire bulegora joan ginen, eta beste 5-6 orduko miaketa egin zuten. Ez zuten ezer aurkitu, noski. Guztia bueltatu zidaten, Ayrton Sennaren autografoa izan ezik.

#### Miaketen ostean etorriko zen gogorra, ezta?

Bost egun egon nintzen inkomunikatuta. Nire kasuan, lehenengo

#### «Larriritua goaz Madrilerara gure aurkako akusazioak oso larriak direlako»

#### «Torturen bitartez ET Ari eginiko elkarrizketen inguruko informazioa lortu nahi zuten»

hiru egunetan torturatu ninduten, eta laugarrenean eta bosgarrenean bakean utzi ninduten. Beste kide-ekasuan, bost egunetan torturatu zituzten, eta hori gerora jakin genuen. Ni inkomunikaturik nengoen, beraz, ez nekien nor gehiago zegoen atxilotuta. Irainez gain, hiru egun zutik eduki ninduten, pareta baten kontra argia piztuta.



E EZEIZA

Bost orduko edo 20 bat minutu ohe batean egoten uzten zidaten. Ariketa fisikoa ugari eginarazi zidaten, bai jantzita, bai eta biluzik ere. Halako batean burni bat atzeman nuen arpegian. «Klik» egin zuten, eta handik segundo batera pistola bat jarri zidaten eskuan. Eta plastikoa ere jarri zidaten buruan birritan.

#### Galdeketak nola joan ziren?

Hiru elkarrizketa egin ditut nik ETArekin *Egunkaria*-rentzat, 1999an, 2000an eta 2001ean, eta egin zizkidaten torturak ETArekin eginiko elkarrizketa horien inguruko informazioa lortzea zuten helburu. Lehenago deitu ninduten deklaratzera fiskalak proposatuta, ET Ari apologia egitea egotzita. Orduan, Garzonek galderak egin zizkidan ET Ari buruzko elkarrizketen gainean, eta nik beti sekretu profesionala argudiatu nuen ez erantzuteko; izan ere, legearen arabera, kazetariek eskubidea dute iturriaren berri ez emateko. Bi aldiz pasa nintzen epailearen aurretik, eta bietan epaia izan zen elkarrizketak interes publikokoak eta zuzenak direla eta delitua soilik elkarrizketatuaren gainean dago-

ela. Beraz, bietan nire aldekoak izan ziren epaiak. Dena den, horrek gutxirako balio izan zuen Guardia Zibilaren aurrean, eta elkarrizketei buruzko informazioa lortu nahi zuten. Beraz, gero, Del Olmori, hau da, *Egunkaria*-ren itxiera eraman zuen epaileari ez zioten informazio hori pasa, gure

#### «'Egunkaria' jo nahi badute edozer gauza jo dezaketela pentsatu zuten jendeak»

#### «Modu askotara lagun daiteke, eta guztiei eskertu beharra dago, oso garrantzitsua baita»

atxilotetekin ez baitzuen zerikusia informazio horrek. Hori beraiantzat nahizuten. Gainerakokideei, berriz, *Egunkaria*-ren inguruan eta bere sorreraz egin zizkieten galdeketak, baina, esan bezala, nire galdeketa %95 elkarrizketa haien inguruan izan zen.

#### Epailearen aurretik pasa ondoren, bermepean kalean utzi zintuen.

Epailearen aurrera eraman nindutenean inkomunikaturik nengoen, beraz, ez nuen konfidantzako abokaturik. ETA zer den galdetu zidan, eta egin zizkidan beste galderegatik benetan zer galdetu ez zekienaren itxura hartu nion. Nik nire aldetik torturak jasan nituela ere kontatu nion. Eta gero aske utzi ninduen 30.000 euroko bermepean. Epaileak nire kartzelako itxera ahalik eta gehien komunikabideen aurrean saihestu nahi izan zuten nire tortura salaketengatik, besteak beste, baina, ez zuten erabat lortu.

#### Bitartean, honi guztiari herriak erantzuna eman zion Donostiako kaleetan.

Inork ez zuen espero horrelako zerbait. Donostiako manifestazioaren erantzuna horrela uler daiteke, jendeak pentsatu baitzuen *Egunkaria* jo badute edozer gauza jo dezaketela, izan ere, ordura arte pasa gabe zeukaten marra bat pasa zuten. Ezker abertzalekoak ziren erakundeen aurka jo zuten ordura arte, beraz, ekintza honekin marra

hori gainditu zuten, eta horregatik jendeak pentsatu zuen hori egiteko gai badira beste edozerren aurka ere egin dezaketela. Horregatik erantzun handi hura ez zen soilik izan *Egunkaria*-ren aldeko jarregatik, Madrili emandako erantzuna ere izan zen, nolabait «hoinaino» esanez.

#### la zazpi urte igaro dira ordutik. Fiskaltzak auzia artxibatzea eskatu zuten, baina azkenean egin egingo da epaiketa herri akusazioarengatik.

Bai. Guk itxaropena bagenuen kasuaren irakurketa zabalagoa egingo ote zuten, baina ez. Fiskala gure alde genuen, baina Alderdi Popularraren eta Guardia Zibilaren beso judiziala direnen herri akusazioarengatik ekingo diote epaiketari. Honen guztiaren atzean Guardia Zibila dago, eta epaiketa honetan euren papera funtsezkoa izan da.

#### Auziaren hasiera gerturatzearrekin batera, gaia gizarteratzearekin zenioten.

Jendearen laguntza eta babesa etengabe jasotzen dugu, eta hori oso ona eta beharrezkoa da. Guretzat oso garrantzitsua da herriari azken bultzada bat eskatzea, hau irabaziko badugu, jendearen bultzadarekin izango baita. Ezin dugu bakarrik irabazi. Pasa den larunbatean, esaterako, Kurasaaleko jaialdia oso arrakastatsua izan zen. Abenduaren 19an Bilbon deitu ditugu herritarrak manifestaziora. Jendetza biltzea da gure asmoa eta nahia, eta zabaldu dadila mezu hori: «Utzi *Egunkaria* bakean!». Horretaz gain, eskualdeetako hiriburuetan *Egunkaria*-ren aldeko egunak antolatuko dira. Herriz herri ere ari gara hitzaldiak eta egiten, gaur Zizurkilan izango dena bezala, jendeak berriro ere buruan izan dezan gaia, eta egun gauzak nola dauden jakin dezaten. Bonok ere jarri ditugu, herritarrek diruz lagundu dezan. Hori epaiketaren gastuei aurre egiteko da, gastuak oso handiak baitira. Modu asko daude elkartzuna adierazteko, eta guztiei eskerrak eman behar dizkiegu, guretzat oso garrantzitsua baita egin eta egingo dutena. Tolosar naizen heinean, bereziki, eskualdeko guztiei eskerrak eman nahi dizkiet emandako laguntzarengatik.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### SALGAI

- **Txerriak.** Bi txerri mahairako salgai. Interesatuek dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 943 69 34 48
- **Garajea.** Garaje marra salgai Alegian, San Juan kalean. Interesatuek dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 669 82 70 96.



## TOLOSAKO UDALA

### IRAGARKIA

2009ko azaroaren 24an izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin udaleko jabetza publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxumendu bereziarengatik, telefonia mugikorraren zerbitzua eskaintzen duten enpresei tasen ordenantza fiskal berri bat ezartzeari erabaki zuten.

Hartutako akordioak Udaltzeko iragarki taulan ageri dira 30 egun aurretik zehar; iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun aurretik hasita, Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesduneko espeditentza aztertu ahal izango dute eta egokitzat jo dituzten erreklamazioak aurkeztu. Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamazioen edo charrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik behar.

Tolosan, 2009ko azaroak 24an  
ALKATEA



Mahai teniseari, billarrean, ordenagailuetan eta abar aritu daitezke gazteak Kultur Etxeko lehen solairuan kokatuta dagoen Gazte Topagunean. E. EZBIZA

## Bost urtetan gazteen biltoki

**Gizartea** » Topaguneak biltzeko, lagunartean egoteko, eta beraien asmoak aurrera eramateko aukera ematen die gazteei.

### ERREDAKZIOA

Bost urte dituen haur bati handia ala txikia den galdetuz gero, ziu-rrenik, berak handia dela esango du. Tolosako Gazte Topaguneak ere esku bete urte ditu, eta hau ere dagoeneko handia dela esan daiteke. Gazteak biltzeko, lagunartean egoteko eta beraien asmoak nahiz ideiak gauzatzeko helburuarekin jaio zen Topagunea, eta asmo horiek guztiak bete ditu Kultur Etxean kokatutako dagoen zentroak.

Azaroaren 13an ospatu zuten Topagunean bere bosgarren urteurrena. Askari batekin, eta ber-

tan ibiltzen direnek, elkarrekin, kandelak itzaliaz. Honez gain, Txan magoaren emanaldia ere izan zen, eta adin ezberdinetako jende ugari hurbildu zen Kultur Etxera.

Gazteen artean somatzen zen behar orokor bati erantzun nahian sortu zen Tolosako Udaleko Gazteria Sailak bultzatutako Gazte Topagunea. Hau, 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Tolosari buruzko ezagutza bultzatzea, herrian antolatzen diren ekintzak zabaltzea, herriko dinamika eta jaietan txertatzea nahiz gazteen inplikazioa sustatzea ditu xede Topaguneak.

Adin talde, ikastetxe eta inguru ezberdinetakoak biltzeko, elkar ezagutzeko eta lagun egiteko bide da. Tolosar gazteen artean oso zabaldua dagoen aisialdirako gunea da jada, eta irekita dagoen egune-

tan, gazteen sartu-irtena etengabea da.

Neguan, hotzetik eta euritik babesteko eremua da. Hori dela eta, nabarmenki, jende gehiago hurbiltzen da urtaro honetan. Dena den, Udak erakartzen ditu gazte gehien, eta ondoren, urtean zehar askok Topagunera joaten jarraitzen dute. Aitzaki hau aprobetxatzen dute askok, ikasturte berrian jarraitzeko.

### Aisia eta heziketa, nahastuz

Ostegunetik igandera dago zabalik Topagunea. Astegunetan, 17:00etatik 20:00etara eta asteburuetan, 16:30etik 20:30era. Futbolingean, mahai teniseari, ordenagailuetan, aldizkari eta komikiak irakurtzen, mahai jokoetan, dar-doetan... igarotzen dute denbora gazteek.

Topagunea koordinatu eta an-

tolatzeko bi lagun egoten dira bertan. Hauek eramaten dituzte aurrera eta bideratzen dituzte gazteen proposamenak.

Ekintzak antolatzeko garaian, gazteekin lan egiten duten beste eragileekin ere harremanetan jartzen dira Topagunekoak. Honela, denak koordinatzeko asmoz duela gutxi sortu da Gaztegunea. Aurrera begira berriz, ikastetxeekin harremana izatea beharrezkotzat ikusten dute Topagunekoek, horrela, ekizta berriak antolatzeko garaian, elkarrekin egin ahal izanagobaitute.

Urtaro bakoitzerako ekimen berezi bat prestatzen dute, horrela, laster etorriko da Gabonetan ospatzen den Gazte Astea. Sasoi bakoitzeko gertaera edo data bereziak kontuan hartzen dituzte begiraleek, esaterako, Inauteriak, herriko jaiak, naturaren zikloak, ospakizun-

nak... Bestalde, nazioartean izendatuta dauden egun berezi horietan horrekin lotutako ekimenak ere burutu ohi dituzte. Izan ere, bertako begiraleen hitzetan, «denbora pasatzeko toki bat baino gehiago da, eta etortzen diren gazteak hezitzea ere bada gure helburua».

Aurten belaualdi arteko aldaketa egon da. Orain arte, 17 urte inguruko gazteek urte asko zeramatzaten Topagunera joaten, baina orain hauek alde egin dute eta 12 urteko gazte txoak hasi dira.

Bertako arduradunen hitzetan, asteburuetan hurbiltzen da jende gehien. Bost urte hauetan, Topagunearen kokalekua ere aldatu egin da. Hasiera batean, Kultur Etxeko areto nagusian zegoen bilgunea, orain berriz, lehendabiziko solairuan.

Gaztea, izatez, berez omen da nahasia eta haizearen arabera dabilena. Horregatik, begiraleentzat zaila da asmatzea, eta jakitea zer nahi duten. Askotan, beraien proposatutako ekintzak antolatuta arren, gero ez dute parte hartu nahi izaten. Jende asko etortzea espero dutenean, gutxi agertzen dira, eta beste batzuetan, alderantziz.

Igandetan, harrera etxean bizi direnak ere Topagunera joaten dira. Honela, gainontzeko gazteak ezagutzeko aukera izaten dute, eta integrazioarako bide dute.

### Ekitaldien berri, SMS bidez

Urtean zehar antolatzen dituzten ekintzen berri zabaltzeko, kartelak jartzen dituzte kaleetatik. Horrez gain, interesatuek, beraien mugikorretan, mezu bitartez jasotzen dute informazioa.

Urtean zehar hainbat ekitaldi egiten dituzte. Ikasturte hasieran, honi ongi etorria emateko festa bat egin zuten, baita mahai-futbol eta billar txapelketa ere. Azaroan berriz, urtemuga ospatu zuten. Oro har, hilabetero egiten dute ekitaldiak. Horretarako, eta erabakitzeke zer egin, gazteei galdetzen diete, hauek ere proposatu dituzten jarduerak.



Urteurrena ospatzeko ekitaldien baitan, Txan magoaren emanaldia izan zen azaroan. HITZA



Adin talde, koadrila eta ikastetxe ezberdinetako gazteentzat bilgune da Topagunea. E. EZBIZA

# Zerbitzu Etxearen lehen harria jarri dute Udalak eta Foru Aldundiak

**Abaltzisketa** » Jesus Mari Gorostidi alkateak azaldu duenez, «hobekuntza handia» suposatuko du eraikinak herriarentzat.

## IMANOL GARCIA

Abaltzisketako Zerbitzu Etxearen lehen harria jarri zuten atzo, obrari sinbolikoki hasiera emanez. Ekitaldian Jesus Mari Gorostidi Abaltzisketako alkatea, Markel Olano ahaldu nagusia eta Rafa Uribarren Landa Garapeneko diputatua izan ziren. Proiektu honen hasiko dira Landagipuzkoa 32 programan jasota dauden Gipuzkoako udalerririk txikietan balio anitzeko azpiegiturak jartzeko inbertsioak.

Proiektu horrek herriarentzat «hobekuntza handia» suposatzen duela dio Jesus Mari Gorostidik. Eraikinean hainbat zerbitzu izango dira: gizarte alorrekoak, kulturalak, sozio-sanitarioak... «Hitzaldiak eta egiteko leku faltan ibiltzen gara, alde batetik», azaldu du Gorostidik. «Hortik dator auditorioa izatearena. Bestalde, herrian egiten diren ekintzak eta, bai gimnasioa, bai eskulanak eta horrelakoak egiteko leku falta daukagu». Horretarako erabiliko da beheko solairua.

## Frontoiaren ondoan

Aurreneko solairuan zerbitzu alorreko enpresentzat izango litzateke. «Herrikeri leku eskaerak baditugu», dio alkateak. «Interesantea iruditzen zaigu herriko enpresa berriak bertan gelditzea, bestela arriskua daukagu alde egiteko». Bestalde, Agenda 21etik eskatu



Foru Aldundiko eta Landagipuzkoa 32ren bidez inbertsioak egingo diren zenbait udalerrietako ordezkariak. I. GARCIA



Eraikinak goitik begiratuta izango duen itxura. HITZA

zaio Udalariparkea handitzearena eta eraikin horrekin «aukera ematen digu parkea bera handitu eta hobetzeko».

Eraikin berria frontoiaren ondoan eta elizaren atzean kokatuko da. Sabaian plaza izango du, eguneko parkearen luzapena izango

dena. Arkitektoek *Txinokira begirada* izena jarri diote eraikinari. Lekuaren aukeraketari dagokionez, Gorostidik azaltzen du herriko enpresa batzuek leku eskaera egin zutela eta «urbanizatu ahal zen leku bakarra gelditzen zena hauxe zen egungo arauetan». Egun aparkalekua den leku hori eta bertan dagoen paretari begiratu, «bukatu gabeko itxura» duela dio Gorostidik. «Alde batetik frontoiari itzala egingo dio, baina hori argiekin konpondu daiteke, eta bestetik tapatu egingo dio eta horrela frontoia ez da bustiko», gaineratzen du alkateak.

Idea lehiaketa egin zuen Udalak eta hamabi lan aurkeztu ziren. Aukeraturakoak «inpresio pixka bat» ematen duela dio alkateak, bere «modernitatearengatik, bai-

na iruditzen zaigu beste ikutu bat eman behar dela». Herriarrek proiektua ikusi dutela eta «nahiko ondo hartu dutela iruditzen zaigu» zehaztu du Gorostidik.

## Milioi bat euroko aurrekontua

Proiektuaren kostua milioi bat euroko da. Foru Aldundiak 600.000 euro jarriko ditu, Eusko Jaurlaritzak 300.000 euro eta Abaltzisketako Udalak 100.000 euro. Finantziazioaren inguruan, baina, arazoak daude. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak ez du bideratu nahi bere diru laguntza proiektua kudeatu duen Etorlur erakundearen bitartez. Horregatik, zenbait udalkek, tartean Abaltzisketakoak, bilerak bat izango dute aurki Eusko Jaurlaritzarekin arazo hori konpondu ahal izateko. Zerbitzu Etxea eraikitzeak lanak urtarrelean hasiko direla eta 13 hilabete iraungo dutela azaldu dute.

Landagipuzkoa 32 egitasmoaren baitan herrialdeko beste hainbat herritan proiektuak finantziatuko dira. Horrela, atzoko ekitaldian zenbait udalerrietako ordezkariak izan ziren, Amezketa, Baliarrain eta Hernialdekoak. Egitasmo horren baitan, Abaltzisketako proiektuaz gain, beste bederatzik herritan onartu dituzte, tartean eskualdeko Aduna, Albiztur, Amezketa, Baliarrain, Gaztelu eta Hernialden. Bestalde, [www.landagipuzkoa32.net](http://www.landagipuzkoa32.net) webgunearan aurkezpena ere egin zuten.

Abaltzisketa bertan beste proiektu batzuetan ere inbertitu du Foru Aldundiak Landagipuzkoa 32 egitasmoaren bitartez: Pildain-Ihartza bidea, 21.800 euroekin; Abaltzisketatik Larraitzeko ermitaraino doan bide irigarria, 500.000 euroekin; saneamendua, 290.000 euroekin; kirol anitzeko gunearan ekipamendua, 71.500 euroekin; eta Aralar parke naturalaren barmeko bideak egokitzeta, 80.000 euroekin.

## Bertso afaria eta dependentziari buruzko hitzaldia, etzi

### ERREDAKZIOA

Udazken Kulturalaren baitan Ibiurrera egindako ibilaldia eta gero, aste honetan hainbat ekitaldi daude ikaztegietan. Biharko Euskararen Egunaz gain, etzi 16:00etan dependentzi legeari buruzko hitzaldia izango da liburutegian eta 21:00etan bertso afaria, Ostatuan, Haritz Casabal eta Andoni Otamendi Hamaika Bertuteko bertsolariekin.

Bestalde, bihar hitzaldia izango da liburutegian, Aulas Kutxak antolatuta. Olatz Arroita *Nola lo hartu* izeneko solasaldia emango du, loaren mekanismoei eta insomnioari buruz.

## Tourreko lehenengoei, ohore

### ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Urkamendi elkarteak Tourreko lehenengo euskaldunegi omenaldia egin berri die. Bazkideak eta gonbidatuak kontuan hartuta 100 lagun bildu ziren omenaldi-afarian. Mikel Astarloza eta Eneritz Iturriagaetxebarria izan ziren txirindulari omenduak eta herriko kirolariarentzako oroiagarria Joseba Otaegi aizkolariak jaso zuen.

Ekitaldia gonbidatuei ongi etorrria eginez hasi zen. Agurra dantzatu ondoren afaltzeko eseri ziren. Postrearen garaian iritsi zen oroiagarriak banatzeko unea eta Astarlozak eta Iturriagaetxebarriak bere irudiek ingandako tarta banatu zuten. Astarlozak Tourreko etapa irabazi zueneko argazkia eman zion Urkamendi elkarteari



Omenaldia jaso zuten kirolariak. HITZA

eta egun igarotzen ari den egoera zailean, lagunek emandako babesa eskertu zuten. Bertsoen garaian, Lizaso eta Telleriaz gain, Otaegi eta Astarloza ere animatu ziren ber-

tsotan egitera. Aurtengoa 24. aldian izan da Urkamendik omenaldi hori antolatzen duena eta, beraz, datorren urtea berezia izango da 25. aldian izango delako.

## Zirkulazioan aldaketak kolektorearen obrak direla-eta

### ERREDAKZIOA

Kolektorearen obrak direla-eta zenbait aldaketa izan dira Tolosako errepide-zirkulazioan. Pablo Gorosabel kalearen amaiera, hau da, Triangulo plazaren ondoko zatia, itxita egongo da obrak azkartzeko. Hala, Beotibar kaletik desbideratu beharko dute autoak eta U bat eginez San Frantzisko etorbidearen hasierara iritsi.

Hain justu, San Frantzisko hasieran, Gernikako Arbolaren parean, egiten ari ziren lanak bukatu dira eta berriro bertan aparkatzeko aukera dago. Bestalde, Belateko obraren bigarren fasea hasi dela ere jakinarazi dute.

# Ezustekoa Lauko Euskadiko Sokatira Txapelketan

**Ibarra** » Herriko mutilen sokatira taldeak hirugarren egin zuen asteburuan izandako finalean; lau puntu eskuratu zituzten.

REBEKA CALVO

Ezustekoa eman zuten Ibarra-ko sokatiralariak pasa den larunbatean Abadiño izandako 320 kiloko Lauko Euskadiko Sokatira Txapelketan. Izan ere, hasiberriak besterik ez dira eta hirugarren egitea lortu zuten 4 puntu eskuratuta.

Sei talde aritu ziren finalean: Abadiño A eta B, Ibarra-koak eta

Auzolan (Astigarraga), Berrundia eta Sokarri A (Arrigorriaga).

Abadiño taldea izan zen Lauko Euskadiko Txapelketako gizonen 320 kiloko txapelduna; Abadiño A taldea izan zen onena 6 punturekin eta Abadiño B-k, berriaz, bost punturekin bigarren egin zuen.

Abadiño A taldeak finaleko txanda eta tiraldi guztiak irabazi zituen, eta B taldeak A taldearen kontra bakarrik galdu zuen. Ibartarrak, aipatu bezala, bikain aritu ziren, eurak izan baitziren Abadiño-koak estutzea lortu zuten bakarrik eta Abadiño B-ri irabazteko zorian ere egin ziren.



Bikain aritu dira sokatiralari ibartarrak euren lehen urtean. HITZA

Finala jokatu aurretik sailkatze-ko bi jardunaldi jokatu zituzten, non, Abadiño A eta B sailkatu ziren aurreneko bi postuetan, larunbatean gertatu bezala, alegia. Sokarrik podiuma osatzeko asmoa zuen, eta Berrundia mendean hartu bazuen ere, Auzolan taldearen aurka tiraldi bat galdu zuen eta hiru falta adierazi zizkion epaileak.

Ibartarrak «oso pozik» daude txapelketan egindako lanarekin. Aurtengoa lehen urtea dela kontuan hartuta gastu ugari izan dituzte, hala ere, eta horiei aurre egiteko Excavaciones Galarregik, Karlatz taberna eta Gurutze Autoak-ek emandako laguntza eskertu nahi dute. Era berean, ondorengo asteetan zehaztuko dizkieten «beste diru laguntza batzuen zain ere bagaude eta oso itxaropentsu gaude» esan dute.

Larunbatean, hilak 5, txapelketa gehiago ere badituzte ibartarrak. Mutilen 300 kiloetako lau txapelketa hasiko da eta bertan ere izango dira. Nesken herriko sokatira taldeak ere 255 kiloetako lau kanporaketa izango du larunbatean.

## Gutunak

### Senideen aurkako erasoak eta Bildarratzen esanak

Euskal preso senideen aurkako erasoak biderkatzen ari dira azken aste hauetan.

Orain arte ez bezala, bisitetara doazenean katxeok eta zapalkuntzak pairatzen ari dira eten-gabe, batzuetan biluztu nahi izateraino.

Oraintxe arte, tratu berezi hori presoari egiten zitzaion soilik. Urrutira joan gabe, asteburu honetan, Laida Zubillaga ibartarra, Dueñaseko espetxean preso duen mutil laguna ikusi gabe geratu da prezozainen jarrera oldar-korraren aurrean planto egin duelako.

Ondorioa: Hilabete honetan, 100 senidetik gora bisitarik gabe geratu dira duintasunari eutsi eta katxeo mota hauei uko egiteagatik.

Helburua: Senideak estutu eta estutu, hauen artean kontraesa-

nak sortu eta ito arte, bisitak desagertarazi arte.

Beste behin, miserable dabil PSOE, gatazkaren gunerik sentiberenetan zauriak sakonduz.

Senideen erantzun duinari preso erantzuna gehitu behar zaie: ia espetxe denetan protestekin erantzuten ari zaie; janariari uko eginez... asko zigortuak ari dira izaten, isolamenduetara bidaliak (jadanik han ez zeudenak noski).

Alarma gorria piztua dago espetxeetan. Eskualde honetako politikari ilustreren batek, honen guztiaren berri ez ematea nahiko luke gainera. Esan zuen, mehatxatu zuen, kartelikedo pankartarik hoberena egiten edo ipintzen ez zen hura zela.

Galderatxo bat kaudillo txiki horri beraz: zuek, boterean zaudetenok kontrolatzen dituzuen komunikabideetan, tarterik utziko al diguzue injustizia guzti hauen berri emateko?

Aldez aurretik badugu erantzuna, urteetako esperientzia oinarrituta.

Eta ondorioz, bereziki gustuko ez ditugun kartelak eta pankartak egin eta ipintzera deitzen dugu, kaleak informazioz betetzera, herriari injustizia hauen berri ematera, guztiok kontzientzia hartu eta presoak eta euren senideak babestera, Amnistiaren Aldeko Mugimenduan eta senideen inguruan antolatuta eta parte hartuz. Aste honetan bertan, aukera ederra dugu etzi bertan Tolosan, eskualdeko manifi, azkeen hilabeteetan eskualde honetan eman diren sarraski ezberdinak salatuz.

Azkena, Aritz, Irati eta Aiestaren bahiketa politikoak, Euskal Herri osoko beste 32 gazterekin batera.

Bertan ikusiko garelakoan, **Ibon Aranalde, Jon Mintegiaga, Eider Ijurko, Ekaitz Aramendi eta Goar Jimenez**. Ibarra-ko preso politiko ohiak.



250 bat pertsona bildu ziren atzo, manifestazioan. E. EZEIZA

## Azken atxiloketak salatu dituzte ikasleek

ERREDAKZIOA

Tolosako ikastetxeetako ikasleek geldialdiak burutu zituzten atzo pasa den asteko 34 gazteen atxilotea salatuz. Geldialdiekin batera 250 bat gaztek ikasle abertzaleek deitutako manifestazioa egin zuen eguerdian Triangulotik abiatuta. Manifestazioan «Euskal Herriak pairatzen duen errepresioaren islada den aurreko egunetako

atxilotei babes» erakutsi zieten. Era berean, atzokoan «errepresio kapitulu berria» bizi izan zutela argitu zuten, izan ere «ikasle batzuk, inongo arrazoirik gabe, identifikatuak eta katxeatuak izan» ziren.

Etzi, ostirala, ikastetxeetan 12:00etan berriz ere geldialdiak egingo dituztela argitu zuten. 12:30ean manifestazioa egingo dute Triangulotik.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



Hainbat ikastetxetan egin ohi dira ospakizunak Euskararen Egunean. Argixoren bisita lekuko. HITZA

## Euskarazko produktuak erosteko Euskararen Eguna izan daiteke aitzakia

**Euskara** » Euskarazko Produktuen Katalogoa osatu dute. Euskal Herri guztian 240.000 ale banatuko dituzte.

### ERREDAKZIOA

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dute bihar Asteasun, Areson eta Ikaztegiaren. Gure hizkuntzaren inguruan hainbat ekitaldi antolatuko dituzte eta horrela, haur, gazte eta helduak euskararen inguruan bildu nahi dituzte ekimenean sustatzaileek.

Bestalde, Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako Euskara Zerbitzuak, Euskarazko Produktuen Katalogoa kalean aurkitzen dela

jakinarazi du. Ez da ahaztu behar Katalogoaren osaketan, Leitzaldeko Euskara Zerbitzua bera ere lanean aritu dela.

Paperezko edizioari dagokionez, aurten 240.000 ale inguru banatuko dira Euskal Herri osoan.

### 'www.katalogoa.org'

Urteko garai honetan seme-alabei edo ingurukoiei euskarazko liburuak, musika edota bideoak erosi eta oparitzeko aukera izaten dela kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute, aurtengoa 12. edizioa da.

Euskal Herriko 135 udal, komunitateetako Euskara Zerbitzuak, hainbat lurraldetako teknikariak... elkarlanean aritu dira ka-

talogoa prestatzeko asmoz. Horrela, gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako chunka erreferentzia biltzen ditu edizio berri honek.

Merkatuan dauden produktuen artean hautaketa egin da, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan sailkatuta jaso dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait atalean adinaren arabera kobanaketa egiten da.

Aurtengo berrikuntza, nolana ere, sarekoa da. Izan ere, guztiz berrituta dator [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) webgunea. Bertan, paperean jasotako produktuez gain, merkatuan aurkitu daitezkeen beste asko agertzen dira. Aukera dago, gainera, produktu horien saltokietara iristeko, eta bertatik erosteko. Urte osoan zehar bizirik eta eguneratuta izateko helburuarekin sortu da gunea, argitaletxeek berek aukera izango baitute produktu berriak sartzeko eta deskatalogatuak kentzeko. Urte osoan zehar kontsultatu ahal izateko leku bat izango da, beraz, eta irakurleek, beren iruzkinak eta komentarioak egin ahal dituzte bertan, irakurri, ikusi, entzun edota jostatzeko hautatu duten produktuen inguruan.

## Ezker abertzalea: «Herriaren izaera kriminalizatzen saiatu dira»

**Leitza** » Hilaren 28tik 29rako gertakariak direla eta, herriko ezker abertzaleak hausnarketa plazaratu du.

kainonatu zituzten gau horretan, Maxurrenekoa baino lehen... eta gero kuarteleko tiroketa gertatu zen. Kasualitateak? Ez. Datuak dira. Egunerogure herrian bizi dugun egoera da».

### A. IMAZ

«Inongo zentzutak biolentziarik gabeko giroan eta kanpoko inolako esku-hartzerik gabe», «handik eta hemendik ematen badigute ere», «herri hau askatasunerantz eraman arte, ez gaituzte gure astotik jaitziko!». Ondorio honetara iritsi da Leitzako Ezker abertzalea, igande goizean gertatutako azo hausnarketa egiterakoan.

### «Datuetan sinisten dugu»

Leitzaren izaera «kriminalizatu» nahi izan dutela salatu dute lehenik: «herri abertzalea izaki, bere izana dieran jarri nahi izan dute, beste behin ere».

Ondoren, kasualitatekin urrun ibili nahi duela aipatu du Leitzako ezker abertzaleak. Horretarako, gertaeraren inguruan honako zerrrenda kaleratu du: «kontrolak etengabe; aurreko ostegunean herriko tabernetan mozkortuta eta *bibaespañaka* eta *bibakristorraika*; ostiral goizean eskola ataria *esto es España* y *aquí se habla español* zioten egutegiz beteta agertu zen; larunbat horretan bertan, kontrolak jarrita zeuden herri sarreran; Iñurrista industrialdean bi gazte en-

### Guardia Zibila, prentsa eta politikariak

Ezker abertzaleak kritikak hiru arlotan banatu ditu: «Guardia Zibila, Leitzako ezker abertzalearen eta politikariak bultzatu».

Guardia Zibila «indar okupatzailea» eta «arazozen sinonimoa» da Leitzako ezker abertzalearentzat, eta «herriarren artean izua eta zalantza eragin dituzte». Horregatik, «Maxurrenea herriarentzat behar dela eta ez ditugula hemen nahi» gogoratu dute.

Komunikabideen inguruan berri, ondorengoa hausnartu dute: «egia zein izan zitekeen egiaztatze ko ez dute pauso minimorik eman».

Politikari «gehienek» jarrera honela ikusi du ezker abertzaleak: «Gezur horren bueltan ibili dira, ez dute aukera alferrik galdu, ezker abertzalearen ekimenari sinesgarritasuna kendu eta enplazamendu faltsuak egiteko».

### Atzo, batzarra eta bilkura

Leitzako udalarekin batzarra egin zuten atzo iluntzean, eta han gaitzaren inguruan eztabadatu zuten Udaleko alderdi politiko ezberdinek.

## Irati Mujika amezketarra Avilako Brievara eraman dute

### ERREDAKZIOA

Iragan astean atxilotu zuten Mujika, beste 33 gazterekin batera. Espainiako Auzitegi Nazionaletik igaro ondoren, epaileak Soto del Real espetxera bidali zuen. Bere inguruko atzo jakinarazi zuten, amezketar gaztea Avilako

Brieva espetxera eraman zuten atzo bertan: «12. moduluan aurkitzen da, beste hainbat euskal preso politikorekin batera».

Egun berean atxilotutako Lopez tolosarra Soto del Realen aurkitzen da eta Ayestaran billabonarra Madrillgo Navalcamerona.

### » BIHAR EUSKARAREN EGUNA

#### Areso

■ **17:00etan.** Kiki eta Koko-ren emanaldia: *Txintxilin txin bakea* egin. Aresoko eskolan edo plazan, eguraldiaren arabera.

#### Asteasu

■ **15:00etan.** Eskolako jaialdia herriko frontoian: aurkezpena, kantuak, euskararekin jolastu...

■ **16:00etan.** Merienda.

■ **18:00etan.** Usarrabi kantu-jira taldea eta trikitaliak herrian zehar.

■ **20:00etan.** Bertso-trama udal-aretoan, Jesus Mari Irazu,

Igor Elortza, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañarekin.

#### Ikaztegieta

■ **09:30ean.** Herriko plazan, 2 urtetik hasi eta 6. maila bitarteko ikasleek poesia emanaldia egingo dute. Idazleek idatziak edota ikasleek asmatuak izango dira. Amaieran *Euskara* izeneko abestia abestuko dute.

■ **11:00etan.** Taloak egin eta jango dituzte haurrek.

■ **Etzi, hilak 4.** Bertso Afaria Ostatu tabernan, Haritz Casabal eta Andoni Otamendirekin.

### ERREDAKZIOA

Bartola Jai Batzordeak biltzarra egingo du bihar, hilak 3, Ibarrako Kultur Etxean. 19:30ean elkartuko dira bertan eta herriar guztiei dei

egin diete, bertara ager daitezen eskatuz.

Batzarrean aurrera begirako egitarauak eta erabakiak aztertuko dituzte.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Aduna.** Aireko akrobazia ikastaroa 5 eta 14 urte artekoentzat Maider Yabar irakaslearekin hilaren 28tik 30era, 11:00etatik 13:00etara, 50 eurotan. Informazioa eta izen-ematea, 667 22 32 36 telefono zenbakian edo [maidertxo@hotmail.com](mailto:maidertxo@hotmail.com) helbidean. Antolatzailea: Asvinenea.

■ **Berastegi.** Elkartasun Azoka hilaren 12tik 18ra: arropa, jostailuak, liburuak, altzariak... jasoko dituzte Muñagorri eskolan, azokan salgai jartzeko. Antolatzailea: Muñagorri eskolako Ingurumen Batzordea.

■ **Tolosa.** Toni Merinoren partaidetza jardunaldia 19:00etatik 20:30era, Kataluniako Rubiako Udaleko partaidetza tekniko. Ondoren. Elisabet Arrietak itxiko du saioa. Ekarpinak eta ideiak jasoko ditu Herriaren Partaidetzarako Udak Kontseilua erregulatzeko Udak proposaturiko araudien inguruan.

■ **Tolosa.** Hilaren 13an BECera Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa antolatu du Galtzaundi Euskara Elkarteak. Izen-ematea, egoitzan bertan 9 eurotan. Bazkide ez direnek 12 euro ordaindu beharko dituzte.

■ **Tolosa.** Material berri eta bigarren eskuko mendiko merkatu txikia Oargi mendiko elkartean. Astelehenerdik ostiralera 18:00etatik 21:00ak arte, asteburu eta jai egunetan 10:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 21:00etara. Bigarren eskuko materiala eraman daiteke hilaren 16tik aurrera, astean zehar 19:00etatik aurrera elkartera. Informazioa, 688 69 86 42 telefono zenbakian. Antolatzailea: Oargi mendiko elkartea.

■ **Tolosa.** Txuletaren Festa abenduaren 4tik 8ra, Zerkausan eta Astelena, Beti Alai, Botarri, Bide Bide eta Usabal jatekx eta sagardotegietan 40 eurotan. Izena emateko, 943 69 74 13 telefono zenbakira deituta, edota [tour@tolosaldea.net](mailto:tour@tolosaldea.net) helbidera idatzita. Antolatzailea: Tolosa Gourmet.

■ **Tolosa.** Hilaren 5ean Durangoko Azokara joateko autobusa antolatu du Galtzaundi k. Izen-ematea, egoitzan 9 eurotan (ez bazkideek, 12). Antolatzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

■ **Villabona.** Gurasoen arteko topaketak antolatu dituzte. Izena Udaleko gizarte zerbitzuetan eman beharko da. Hilaren 4a izango da horretarako azken eguna. Haurtzaindegi zerbitzua aurrez eskatu beharko da eta kuota 12 eu-

rokoa da. Bi taldetan banatu dituzte taldeak: bat 0-10 urte artekoentzat eta bestea 11 urtetik aurrerakoentzat.

■ **Villabona.** I. Euskarazko Bakarriketa Lehiaketa: gaia libre, 10-15 minutu arteko iraupena izan beharko du. Izen-ematea, udaletxean.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Titirijai jaialdiko erakusketak: *Quebec-era leihoa*, Aranburu jauregian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 52. 112.

### » IRRATIA

#### Txolarre irratia

**11:00-13:30.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak.  
**13:30-14:00.** Albistegia - Info 7.  
**14:00-15:00.** Tolosaldeko Albistegia. **17:00-17:45.** Musika nobedadeak. **17:45-18:00.** Argia asteakaria. **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena). **20:00-20:30.** Albistegia, Info 7. **21:00-23:00.** Bide okerretik.

### » TELEBISTA

#### 28 Kanala

**08:30.** Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis.  
**09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kalekantoitoi. **10:30.** Ilunpean. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Klipak. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Muka-Muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kalekantoitoi. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Erklip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Klipak. **16:30.** Zahar berri. **17:00.** Muka-Muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa kultura. **18:30.** On ein!  
**19:00.** Mendialdean bizi. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Artegitza. (\*16:30etik 20:00etarako blokea 4 orduro).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Umorezko saioa euskaldunen eskutik

**TITIRIJAI** ■ Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko jaialdian umorez beteriko ikuskizuna izan zen ikusgai herenegun, Tenderete taldearen *Amores y desamores de la molinera* o *el buen oficio del maleficio* emanaldian. Atzo ere saio ugari izan ziren, eta gaurkoan, beste

bost izango dira, horietatik bi irekiak: Gorosabelen, 18:00etan Italiako L'Asina Sull'isola taldearen *Platero eta ni*, eta Topic-en, berriz, Herrialde Katalanetako Anita Maravillas-en *Leonoren ametsak* izango da ikusgai, 20:30etik aurrera. I.TERRADILLOS

## A Agurrak

agurrak urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

# libre!

munduan libre bizi ghal izateko **libre!** libre munduan bizi ghal izateko

**HITZALDIA**  
Abenduaren 2an, 20:00etan,  
Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean  
Martxelo Otamendiren hitzaldia

**deialdi irekia**

www.egunkaria.info

ABENDUAK 5  
LARUNBATA

XVI RALLYE bbk  
2009 GERNIKA-LUMO

www.gernikaracing.com